

# Egunez egun diabetesarekin

Zikloa: 1.a eta 2.a

## Caia: Urtebetetzeak (1)

IRAKASLEA

IKASLEAK



[www.fundaciondiabetes.org](http://www.fundaciondiabetes.org)

Ikasgela askotan (agian baita zurean ere) ikasleek beren ikaskideen artean banatzeko gozokiak eraman ohi dituzte beren urtebetetze-egunean.

Urtebete gehiago duzu eta horrek ematen dizun poza zure ikaskideekin partekatu nahi duzu, haientzat gozokiak eramanez.

Batzuetan, ordea, ohitura hori norgehiagoka bihurtzen da; ikasgelara gozoki gehien norik eramaten duen neurtzeko lehiaketa. "Albertok Kinder arrautza bat ekarri badu, Laurak, arrautzaz gain, patata zorro bat ere ekarriko du. Horren ondoren, Martak, bere ikaskideek ekarritakoa gaitu nahian, Kinder arrautza bat, patata-zorroa eta bakoitzarentzat bost gominola ekarriko ditu".

Eta horrela, poliki-poliki, urtebetetze egunean klasera gozokiak eramateak atsegin izateari uzten dio; betebehar bilakatzen da... eta hori ez da dibertigarria.

### Irakur itzazu honako testu hauek eta galderei erantzun:

#### **Carol**

- Ama, biharko gozokiak erosi behar ditugu.

#### **Ama**

- Ongi iruditzen al zaizu bakoitzarentzat patata-zorro bat eramatea?

#### **Carol**

- Hori besterik ez? Luisek lehengo astean hamar gominola eta patata-zorro txiki bat eraman zituen..

#### **Ama**

- Hori gehiegi iruditzen zait.

#### **Carol**

- Hori eramatekotan, nahiago dut ezer ez eraman. Barre egingo didate.

Zergatik ez zaio ongi iruditu amak proposatu diona?

Zer iruditzen zaizu zuri?

Ba al duzu klasean proposatzeko ideiarik?